

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5228

DEKRETUA 166/2023, azaroaren 7koa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio «Finantzen Euskal Institutua» zuzenbide pribatuko erakunde publikoari «Finkatze Kapitala Finkatuz SA» merkataritza-sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte har dezan eta baimena ematen baitzaie «Finantzen Euskal Institutua»ren titulartasuneko akzioen ordezkariari sozietatearen estatutu sozialetako 13. artikulua aldatzeko adostasuna eman dezaten.

2023ko uztailaren 20an, Finantzen Euskal Institutuaren Administrazio Kontseiluak kapital-zabalkuntzari eta estatutuen aldaketari buruzko erabakiak hartu zituen, batetik, Administrazio Kontseilu gisa, Finantzen Euskal Institutuaren Estatutuak Onartzen dituen abenduaren 23ko 218/2008 Dekretuko 8. artikulua k) letran jasota dagoen ahalmena erabiliz, eta, bestetik, Finkatze Kapitala Finkatuz SAren akziodun bakarraren eskubideak egikaritzuz. Finkatze Kapitala Finkatuz SAk lauhun (400) akzio berri jaulkiko ditu, bakoitza ehun mila (100.000) euroko balio nominalarekin, guztira berrogei milioi (40.000.000) euro eginda. Akzioak ordaintzeko, akziodun bakarrak, hau da, Finantzen Euskal Institutuak, egindako diru-ekarpena erabiliko da.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuko 110.1 artikuluan ezartzen denez, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen sailburuak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean; doako eskurapena ez baldin bada behinik behin, dekretuak nahitaez adieraziko du zein den sozietatearen xedea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak sozietatean zuzenean nahiz zeharka izango duen partaidetzaren ehuneko ere.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuko 111. artikulua bigarren apartatuak ezartzen duenez, zuzenean nahiz zeharka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo Instituzionalaren titulartasunekoak diren akzioen ordezkariak, sozietate-estatutuak onartzeko edo aldatzeko onarpena emateko (kapital-zabalkuntzak estatutuak aldatzea ere badakar berekin), Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute, betiere ondareari buruzko eskumenak dituen sailburuak eta sozietatea loturik duen saileko buruak biek batera proposaturik.

Finkatze Kapitala Finkatuz SA sozietatearen estatutuaren 2. artikulua arabera, sozietatearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa handietan epe luzeko partaidetza finantzarioak eskuratzeko, besterentzea eta kudeatzea, enpresa horiek Euskadin errotuta jarrai dezaten eta EAEko ekoizpen-ehun osoaren eragile izan daitezen.

Aipatutako kapital-gehikuntza egiten da, alde batetik, Finkatze Kapitala Finkatuz SA sozietatearen estatutuaren aurrekusten diren sozietate-inbertsioetarako irizpideak betetzea ahalbidetzeko eta, bestetik, Finantzen Euskal Institutuaren maniobra-marjina indartzeko, izan ere institutu hori baita EAEko finantza-politika antolatzen duen eragilea eta gaur egun garrantzi berezia baitu ekonomia sustatu eta garatzeko politika aktiboetarako, hain zuzen ere politika horiek ezartzen baitute EAEren eraldaketaren bidea.

2023ko azaroaren 21a, asteartea

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaia eztabaidatu eta onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoari baimena ematea Finkatze Kapitala Finkatuz SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte har dezan, berrogei milioi (40.000.000) euroko guztizko zenbatekoarekin (zabalkuntzaren % 100). Eragiketa honen ondoren, Finantzen Euskal Institutuak % 100eko partaidetza izango du enpresan.

2. artikulua.– Finantzen Euskal Institutuaren titulartasuneko akzioen ordezkariari baimena ematea, kapital-zabalkuntzaren ondorioz, Finkatze Kapitala Finkatuz SA sozietatearen estatutu sozialetako 13. artikulua aldatzeko adostasuna eman dezaten. Honela idatzita geratuko da artikulua hori:

«13. artikulua.– Sozietatearen kapitala.

1.– Sozietatearen kapitala hirurehun milioi (300.000.000) eurokoa da, eta 3.000 akzio arrunt eta izendunetan adierazia dago; akzioak klase eta serie bakarrekoak dira, bakoitza ehun mila (100.000) euroko balio nominalarekin, eta zenbaki korrelatiboak dituzte, 1etik 3000ra (biak barne), eskubide politiko eta ekonomiko berberak, eta tituluen bidez emanda daude.

2.– Akzio guztiak harpidetuta eta ordainduta daude».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko azaroaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.